




AZKOITIA HERRILAB +700

2021EKO TXOSTENA



aztiker
SOZIOLOGIA IKERGUNEA

AURKIBIDEA

1. SARRERA	3
2. PROZESUARI EZARRI ZAIZKION HELBURUAK.....	4
3. PROZESUAREN EGITURAKETA, LAN FASEAK ETA PARTAIDETZA	5
3.1. PROZESUAREN EGITURAKETA	5
3.2. FASE NAGUSIEN SINTESIA ETA PARTAIDETZA DATUAK	6
4. AZKOITIA HERRILAB +700: DIAGNOSTIKOA.....	12
4.1. HERRI BIZIA: KULTURA ETA KIROLA	13
4.2. HEZKUNTZA, HIZKUNTZA ETA AISIALDIA	15
4.3. SOZIOEKONOMIA	18
4.4. BERDINTASUNA, KULTUR ANIZTASUNA ETA ANIZTASUN FUNTZIONALA	20
4.5. ONGIZATEA ETA BIZI KALITATEA.....	23
4.6. BIZILAGUNAK, AUZOAK, INGURUMENA ETA LURRALDEA	25
5. AZKOITIA HERRILAB +700: LEHENETSITAKO LAN-ILDOAK.....	28
6. AMAIERA HITZA	31

1. SARRERA

Azkoitia Herrilab +700 prozesua bi anbizio nagusirekin jaio da. Lehenik, hausnarketa marko zabal eta anitz baten sorrera ahalbidetzea Azkoitiak egun bizi duen errealitatearen diagnostiko partekatu bat egitea lortuko duena. Eta, bigarrenik, bide horretan parte hartuko duen komunitatearen elkar ezagutza, kohesioa eta aktibazioa bilatzea.

Gaur egun krisian dagoen gobernantza ereduari bide alternatiboetatik ekiteko beharra oro har partekatua bada ere, jarduteko era berrietan sakonduko duen proposamenik ez da ageri. Azkoitia Herrilab +700 prozesuaren xedea hori izan ez bada ere, lanketa esperimental gisa baliagarria izan daiteke, instituzio eta herritarren arteko harremana eta elkarlanerako espazioak sortu dituelako.

Azkoitia Herrilab prozesuak hiru fase nagusi aurreikusi ditu. Hasteko, prestaketa eta komunikazio fasea, 2021eko udan garatu den fasea; jarraian, diagnostiko partekatua sortzeko fasea, 2021eko udazkenean egin dena; eta bukatzeko, ekintza plana osatzeko fasea, 2022an burutzea aurreikusi dena. Txosten honek, lehenengo bi faseen memoria deskriptiboa jaso du, eta horrekin batera, osatu den diagnostiko partekatuaren edukiak azaltzen ditu.

2024. urtean herriaren 700. urteurrena inflexio puntu garrantzitsua izatea nahi da Azkoitian. Prozesuaren abiapuntutik zeharka dagoen ideia da hori, prozesuaren lehenengo bi faseak diagnostikoan, hots, gaur egungo egoeran, sakontzea ahalbidetu dute, baina, eta hurrengo fasearen garapenean, hau da, etorkizuneko ekintza planean, zehaztuko da 2024ko inflexio puntuaren harira gauzatuko diren proiektu edota ahaleginak zein diren.

2. PROZESUARI EZARRI ZAIZKION HELBURUAK

Azkoitia Herrilab +700 prozesuak bi helburu nagusiri erantzuten dio. Alde batetik, herritarren zein udal ordezkari eta langileen iritzi eta lanketa bateratuan oinarritutako diagnostiko partekatu bat lortzea, hori, helburu material gisa izendatu daiteke.


Eta bestetik, prozesuak sustatu duen elkarlanerako espazioez baliatuta komunitatea kohesionatzea, elkar ezagutza eta harremana bultzatzea, hau da, komunitate identitatearen indartzea bilatzea, eta bigarrenago hau, helburu abstraktuagotzat hartu da.

HELBURU ZEHATZAK

- Azkoitiko udal ordezkari denak lantzea eta adostea talde hausnarketa prozesua egitea, herri diagnosia ko-sortzeari begira .
- Udal ordezkariak, proiektu honekiko, egun betetzen duten rola alde batean utzi (gobernu-oposizioa), eta talde lanerako konpromisoa hartzea.
- Aipatutako hausnarketa prozesua udal barruko beste egitura garrantzitsuarekin ere konpartitzea, zehazki, udal teknikariek eta langileekin.
- Aipatutako hausnarketa prozesua, herri mailako beste eragile, erakunde eta herritarrei ere irekitzea, eta dinamika ezberdinen bidez, bakoitzaren ideiak eta hausnarketak kontuan izanik, eta denei lekua eginez, herri diagnosia sortzea.
- Azken finean, udal instituzioaren barruan eta kanpoan, kohesioa eta komunitate identitatearen lanketari begira ariketa egitea.

3.2. FASE NAGUSIEN SINTESIA ETA PARTAIDETZA DATUAK

Azkoitia Herrilab +700 prozesua hiru fase nagusitan burutzea aurre ikusi da. 2021 urtean lehenengo bi faseak, lehenik, prozesuaren komunikazioa eta sozializazioa, eta ondoren, herri diagnosis sortzea. Eta, hirugarren eta azkeneko fasea, diagnostikoan oinarritutako ekintza plana diseinatzea 2022an egitea aurreikusten da.



○ 1. FASEA: PROZESUAREN KOMUNIKAZIOA ETA SOZIALIZAZIOA

Lehenengo fasearen helburua prozesuaren egituraketa zehaztea izan da, prozesuaren sozializazioa burutzea eta ekarpenak jasotzea testuingurura egokiago egokitzeko. Lehenengo fasea maiatza eta iraila bitartean garatu da.

Horretarako honako jarduera hauek egin dira:

- Komunikazio euskarriak eta egitura zehaztu:* Prozesua ezagutzera emateko eta agente ezberdinekin harremana burutzeko euskarriak sortu dira. Azkoitiko Udalak herriaren 700. urteurrenari begira sortutako logoa "Herrilab" hizkia gehituta erabili da prozesuaren bereizgarri gisa. Marka horretatik abiatuta, eskutitz eredu bat ere sortu da prozesuaren aurkezpen eta gonbidapen gisa. Bukatzeko, zehaztu diren sei gai-eremuetako bakoitzerako herriko elkarte eta taldeen zerrenda osatu da Udala eta Aztikerren artean.
- Udal ordezkari, teknikari eta langileekin aurkezpena (2 saio):* Aurrez aurreko abiapuntua udal ordezkariekin egin da, eta ondoren udal teknikari eta langileekin. Bi saioen helburua prozesua bera aurkeztea izan da, prozesuaren xedeak, partaidetza bideak, hurrengo urratsak... eta horrekin batera, partaideen kezka eta espektatibak elkarbanatzeko aukera ere eman da. Gainera, gobernantza ereduaz hausnartzeko eta erronka berriei aurre egiteko gisa honetako prozesuen logikaren inguruko azalpena ere egin da. Udalean ordezkariak duten alderdi guztiek parte hartu dute saioan (EAJ, EH Bildu, PSE eta Azkoitia Bai).




- *Gai-eremu bakoitzeko aurkezpenak (6 saio):* Kasu honetan, zehaztu diren gai eremu bakoitzeko elkarte, talde, eragileak... zuzenean gonbidatu dira bileretara, eta erabilitako metodologia ordezkari politiko, teknikari eta langileen saioetan erabilitakoa izan da; hots, prozesuaren aurkezpena burutzea eta gobernantza ereduaren gainean hausnarketa sustatzeko azalpena ematea. Horrekin batera, lehenengo bilera ronda hau prozesuari berari ekarpenak egiteko baliatu da, nola hobetu komunikazioa, nola egin partaidetza handitzeko, informazioa transmititzeko... hori horrela partaideek haien ekarpenak egin dituzte horretarako jarri diren euskarriak erabiliz.


Lehenengo fase honetan egindako saioen partaidetza datuak laburtu dira hurrengo taulan.

Eremua	Bilera data	Partaideak	Emakumeak	Gizonak
Ordezkari Politikoak	2021/06/01	15	7	8
Udal teknikari eta Langileak	2021/06/10	24	12	12
Herri Bizia: Kultura eta Kirola	2021/09/29	6	0	6
Hizkuntza, Hezkuntza, eta aisialdia	2021/09/28	23	18	5
Sozioekonomia	2021/09/21	6	4	2
Berdintasuna eta kulturantzatasuna	2021/09/28	9	2	7
Ongizatea eta Bizikalitatea	2021/09/30	20	16	4
Auzoak, ingurumena eta lurraldea	2021/09/30	12	5	7
GUZTIRA		115	64	51

Partaidetza bilera bakoitzean eta generoaren arabera (kop)



Partaidetza generoaren arabera (%)



○ 2.FASEA: HERRI DIAGNOSTIKOA

Bigarren fasean herri diagnosis sortzeko lanari ekin zaio, eta horretarako hainbat jarduera egin dira. Herritarren askotariko partaidetza ahalbidetzea bilatu da lehenik iritzi bilketa zabal bat egiteko, eta ondoren, lortutako ekarpenetan sakontzeko gai eremu bakoitzeko saioak egin dira. Bigarren fasea, urria eta azaroa bitartean egin da.

- *Komunikazio lana:* Bigarren fasea herritarrei prozesuaren berri eman eta parte hartzeko aukerez informatzeko kanpaina batekin abiatu da. Horretarako, udal ordezkari politikoek prentsaurrekoa eman dute, eta etxebizitza guztietara informazio esku-orria banatu da. Hortaz gain, udalaren webgunean Azkoitia Herrilab +700 prozesuaren orria sortu da, bertan beharrezko informazioa eman eta online parte hartzeko aukera emanez.



- *Galdetegia:* Herri diagnostikorako ekarpenak jasotzeko lehen urratsa galdetegi baten zabalpena izan da. Honen bidez azkoitiarrek herriaren egoeraz duten iritzia jaso da, eta horretarako honakoak dira egin diren galdera irekiak:
 - Zein da gaur egun zure kezka edo arazo nagusia?
 - Zein iruditzen zaizu dela gaur egun Azkoitiak duen arazo edo erronka nagusia?
 - Zure ustez, zein da gaur egun Azkoitiak duen indargune nagusia?
 - Udalarentzako eskaera zehatzak

Galdetegia betetzeko hainbat aukera eman dira. Etxe guztietara bidali den esku-orriarekin batera helarazi da, gainera, udalean, elkargunean eta liburutegian ere herritarren esku jarri da, eta bukatzeko, online formatuan bete ahal izateko webgunean esteka bat egokitu da (<https://labur.eus/herrilab700azkoitia>).

- *Kale iritzi bilketa:* Herrian prozesuaren sustapen lana egin eta galdetegia betetzera herritarrek animatzeko kale iritzi bilketarako postuak ezarri dira hiru egunez. Bertan herritarrei beharrezko azalpenak eman, prozesuan parte hartzera gonbidatu eta galdetegia erantzuten lagundu zaie.

Data	Ordua	Tokia
2021/10/04	10:30-13:30	Parrokia aurea
2021/10/05	10:30-13:30	Jausoro
2021/10/05	15:00-19:00	Liburutegi aurea
2021/10/06	10:30-13:30	Elkargunea
2021/10/06	15:00-19:00	Balda plaza



- *Udal ordezkari eta teknikariekiko saioa (2 saio):* Bigarren fase honetan ere diagnosia osatzeari begira udal barne mailako bi bilera egin dira. Lehenengoa udal ordezkariekin eta bigarrena udal teknikari eta langileekin. Bilera hauetan, galdetegiaren bidez lortutako argazkia partekatu eta iritzietan sakontzeko baliaitu da. Ideia batzuk gehiago zehaztu eta azpimarratu dira eta ideia berriak ere gehitu dira.






- *Gai-eremu bakoitzeko saioak (6 saio):* Lehenengo fasean egin bezala zehaztutako sei eremu horietako elkarte, talde eta eragileei deialdi zehatza bideratu zaie saioetan parte hartzeko. Hala ere, saio irekiak izan dira eta herritar norbanakoak ere parte hartu dute. Saio bakoitzean galdetegiaren bidez lortutako ideia nagusiak partekatu dira eta partaideekin kontrastatu dira, batez ere, eremu bakoitzean gai horiekin zerikusia izan duten ideietan zentratu da elkarrizketa. Emandako iritziekin Aztikerreko teknikariak ordu arte jasotako diagnostikoa osatu dute.
- *Bateratze saioa:* Prozesuaren bigarren faseari amaiera eman eta ordu arte landutakoa bateratzeko asmoarekin azaroaren 20an saio irekia antolatu da. Saio honetara gainera aurrez parte hartu duten herritar guztiei helarazi zaie gonbidapena. Diagnostikoaren ideia nagusiak bateratzeaz gain, saioaren xedea izan da herritarrek gainerako eremuetan landutako ideiak ezagutzea eta diagnostikoaren osotasuna aintzat hartuta hurrengo ekintza planerako lehentasunak zein behar duten eztabaidatzea.



Bigarren fasean galdetegiaren bidez lehenik, eta saioetan ondoren, izan den partaidetza laburtzen da jarraian:

GALDETEGI BIDEZKO PARTAIDETZA


Guztira 757 galdetegi jaso dira, horietatik gehiengoak norbanako gisa eman du iritzia, eta 12 elkartek talde bezala bere ekarpena egin diote diagnostikoari.

Partaidetza generoaren arabera (%)**Partaidetza adinaren arabera (%)****Partaidetza hizkuntzaren arabera (%)****SAIO IREKIETAKO PARTAIDETZA**


Saio irekietarako lehenengo fasean bezala, udal barneko bi saio egin dira, ordezkari politiko, eta teknikari eta langileekin; eta gai-eremu bakoitzeko sei saio egin dira. Bukatzeko bateratze saio bat egin da.

Eremua	Bilera data	Partaideak	Emakumeak	Gizonak
Udal teknikari eta Langileak	Urriak 25, 11:30	15	8	7
Ordezkari Politikoak	Urriak 25, 18:00	14	8	6
Herri Bizia: Kultura eta Kirola	Urriak 27, 18:30	10	0	10
Hizkuntza, Hezkuntza, eta aisialdia	Urriak 28, 18:00	9	6	3
Sozioekonomia	Azaroak 2, 15:00	4	3	1
Berdintasuna eta kultur aniztasuna	Azaroak 2, 18:00	7	1	6
Ongizatea eta Bizi kalitatea	Azaroak 3, 17:00	10	6	4
Auzoak, ingurumena eta lurraldea	Azaroak 4, 18:30	7	4	3
Saio irekia	Azaroak 20	27	14	13
GUZTIRA		103	50	53

Partaideak bilera bakoitzean generoaren arabera (kop)




Partaideak generoaren arabera (%)



4. AZKOITIA HERRILAB +700: DIAGNOSTIKOA

Atal honetan prozesuan guztian zehar sortu den edukia aintzat hartuta, abiapuntuko ideia guztien sailkatze eta sintesia egiten da. Prozesuaren hasieran sei gai-eremu zehaztu dira, eta diagnostikoa burutzeko ere gai-eremu horien baitan sailkatu da jasotako informazioa. Ideien sailkapen zehatzago bat egite aldera, gai-eremu bakoitza hainbat azpi-gaietan banatzen da, guztira, hamazortzi azpigai landu dira.



Azkoitiko herritarrek, eragileek eta udalak bizi duten errealitatearen gaineko duten iritzia aintzat hartu du diagnostiko honek, eta iritzi horietan oinarrituta sortu diren azpigai horietako bakoitzean hauteman diren indarguneak eta ahulguneak edo kezka azaltzen dira. Eta horrekin batera, gai bakoitzean hitz-gako sorta bat identifikatzen da, gai horrekin lotutako ideiak azaltzeko hitz-gakoak, alegia.

Jarraian gai-eremu bakoitzean jasotzen diren ideiak azaltzen dira.

4.1. HERRI BIZIA: KULTURA ETA KIROLA

Herri Bizia gai eremuan bi azpigai nagusi kokatu dira, alde batetik, kultura, batez ere herriko kultur jarduera eta kultur mugimenduari begirako ideiak lantzen dira hemen. Eta bestetik, kirola, udalaren kirol azpiegitura, kirol zerbitzu eta kudeaketaren inguruko ideiak bildu dira azpigai honetan.

KULTURA	
INDARGUNEAK	<ul style="list-style-type: none"> - Azkoitiko kultur espazioei, hala nola, Baztartxo antzokia, Matadeixe kultur ekintza, eta Elkarguneari berari balioa ematen zaie. Herriko kultur dinamikan duten funtzioa aitortzen zaie. Elkargunearen kudeaketa zalantzan jartzen duten aipamen batzuk ageri diren arren. - Kultur arloan Azkoitiak duen potentziala nabarmendu daiteke, batez ere, herrian dauden talde eta eragile ugari eta anitzei erreferentzia eginez. Udalak hori babestu eta sustatu beharko lukeela azpimarratzen da.
AHULGUNE-KEZKA NAGUSIAK	<ul style="list-style-type: none"> - Kultur jarduerari dagokionez, dinamismoa falta zaiola uste da, ekintza edo jarduera gehiagoren beharra. Gazteei begirako kultur jardueren falta nabarmentzen da, kontzertu falta aipatzen da, eta honek espazio egoki baten beharrezkin harremana izan dezakeela dirudi. - Espazioei dagokionez kulturgune baten beharra somatzen da. Bereziki Baztartxo edota Elkargunek asetzen ez dituzten ekitaldiei begira, kontzertu, gertuko ekitaldiak,... San Agustin (Azpeitia) bezalako ekipamendu batek kultur eremua dinamikoagoa egiten lagunduko luke, malguagoa da, aukera aniztasuna ematen dio herri ekimenari. Kultur etxea elkarreentzako lokalak besterik ez dira, beharrezkoak, baina ez da dinamika jakina duen kulturgune bat.
IDEIA OSAGARRIAK	<ul style="list-style-type: none"> - Euskal antzerkigintza eta zinemaren sustapena ere beharrezkoa dela uste da. Herritarren partaidetza garatzea beharrezkoa da eremu honetan. - Orokorrean, herriko kultur ondare eta historiaren ezagutzaren gabeziak kezka sortzen du, horrekin batera, kultur ondarearen zaintza eta sustapenean lan egiten duten taldeen iraunkortasuna ez dago bermatuta. 700. Urteurrena aitzakia ona izan daiteke ondare historikoa lantzeko eta balioa emateko. Hezkuntza eremuarekin lotura handiagoa beharko luke (bertako kultur ondarea ezagutu beharra) - Sortzaileak: ezagutza falta dago sortzaileen artean, behar komunak ikusten dira eta sarea sortzeko beharra dago. Kultur mahaia saiatu da baina onartzen da ez dela lan erraza. - Elkarreentzako erreleboak lortzea erronka da, boluntarismoak egiten duen lana aitortu eta prestigiatzeko beharra dago, hori lehen urratsa izan beharko litzake.




KIROLA	
INDARGUNEAK	<ul style="list-style-type: none"> - Kirol arloa ongi baloratzen dute azkoitiarrek. Herriko kirol elkarten gaitasunari balioa ematen zaie. - Orokorrean eskaintza anitza dagoela uste da eta ekipamendu aldetik herria ongi hornitua dagoela nabarmentzen da. - Kirol eremuen kokapena ere indargunetzat hartzen da, gertutasuna balioan jartzen dute.
AHULGUNE-KEZKA NAGUSIAK	<ul style="list-style-type: none"> - Kirol elkarten arteko foro iraunkor baten falta. Kirol taldetan identifikatzen diren behar komunei erantzun bateratu eta saretu bat emateko aukera eman dezake honek edo harago joanda herrian ikusi diren beharrei erantzun koordinatua emateko. Taldeen arteko kolaborazioa eta konpromisoak hartzea, potentzial biderkatzailea gizarte bezala daukagun zailtasunei aurre egiteko. Kirol elkarten arteko erlazio "formalik" ez egoteak ez du laguntzen eta elkarteei udalak dirulaguntzak emateko erabiltzen duen araudia berrikusi beharra dagoela uste da, kirol elkartekin batera adostutakoa izateko. Elkarte eta udalaren arteko harremanen burokratizazioak elkarten jarduerari berari ez diola mesederik egiten uste da, eta konfiantzazko harremana ez du garatzen uzten. - Ekipamendu aldetik ahulgune nagusia igerilekuaren saturazioa da gehien nabarmentzen den ideia, handitzeko beharra ikusten dute herritarrek. Badirudi Udala urratsak eman dituela zentzu honetan eta laster irtenbidea emango zaiola.
IDEIA OSAGARRIAK	<ul style="list-style-type: none"> - Ez dago kirol teknikaririk udalean. - Hainbat egokitzapenen beharra ere azaleratzen dute, hala nola, gimnasioaren ekipamendua eraberritzea, futbol zelaia eta tenis eta paddel pisten estaltzea. - Zerbitzuei dagokionez: emakumeei begirako ariketa hipopresiboak, haurdunaldietarako yoga, terapiak... faltan botatzen dira. - Kaleko kirol jarduera sustatzeko ekipamenduen beharra ere aipatzen da: pumptrack edota skate park bezalako instalakuntzak. - Kudeaketari dagokionez, kirolguneako kuotaren prezioagatik herritar guztiek sarbide aukera ez izateak sortzen du kezka. - Gizonezkoen futbolak pisu handiegia du gainerako kirolekin alderatuta.



HIZKUNTZA	
INDARGUNEAK	<ul style="list-style-type: none"> - Herritar askok balioa handia ematen diote "herri euskaldun" izaerari. Azkoitia euskaraz bizitzeko toki pribilegiatua dela azpimarratzen da, euskararen arnagunea gisa. - Euskaltegia aipatzen da zerbitzu garrantzitsu gisa, herritarren euskalduntzerako betetzen duen funtzioagatik. - Euskara mahaia foro baliagarria eta indargunea da.
AHULGUNE-KEZKA NAGUSIAK	<ul style="list-style-type: none"> - Atzera pausoa: Kezka nabarmena da herritarren artean sentsazioa dagoela euskararen erabileran atzera pausoa ematen ari dela orokorrean. Kalean gero eta gaztelera gehiago entzuten dela, eta, nerabe eta gazteen hizkuntza ohituretan gaztelararako aldaketa zantzuak kezkatzen du bereziki. - Herritarren aldetik kontzientzia linguistiko handiagoa behar dela uste da. Herri erabat euskalduna izatean, euskara galtzeko arriskuak (euskal herriko hainbat tokitan ez bezala) ez ditu oro har kontzientziak piztu eta egun bizi den egoeraren aurrean ahulgune bat da hori. - Baliabide gehiago euskara ikasteko: Doakotasuna eta diru laguntza sistema aldatu beharra. Diru laguntza hasieratik jasotzea garrantzitsua da, hasierako ekarpen hori egin behar ez izateko, oztopoa baita askorentzat ikasketak abiatzeko. Baliabide gehiago behar dira alfabetatzerako, matrikularen prezioa askorentzat garestiegia da. Horrekin batera ordutegi malgutasuna eskatzen da. Hala ere, Jaurilaritzak arautzen du taldeen sorrera, kopuru minimo bat ezarriz, beraz zaila da hortik malgutasuna lortzea. Azpimarratu behar da zerotik abiatzen direla ikasle ugari eta horrek hasieran dedikazio handia eskatzen duela. Zaila da denbora ateratzea eta horretarako gakoetako bat euskara ikasleek lan egiten duten enpresen kolaborazioa litzake, langileek euskara ikasteko denbora edota baliabideak ezarriz.
IDEIA OSAGARRIAK	<ul style="list-style-type: none"> - Testuinguru aldaketak euskarentzat aukerak bezala, hizkuntza gutxitua izanik arriskuak ere badakartzalako: globalizazioa, teknologia berriak edo digitalizazioak, komunikabideen hedatze eta horien kontsumo ohituren aldaketa... - Atzerriko hizkuntzak menperatzen dituzten pertsonen murgiltze linguistikoa beharrezkoa ez ezik, erroka gisa nabarmentzen dute ugari. Eta bestetik, aipatzen da udalaren komunikazioa (haurrentzako jarduerak, ...) euskara hutsean burutzeak inklusioa zaildu dezakeela atzeritik etorritako pertsonentzat. - Ereku publikoan, edo azpikontrataturako zerbitzuetan, euskarazko zerbitzua bermatzea, udalean, udaltzaingoan, osasun zerbitzuetan, kiroldegian, ikastaroetan... Ereku formalak izan daitezkeen horietan, lan munduan esaterako, euskararen erabileran asko dago egiteko oraindik. Gainera, Euskara mahaia indartu eta kolektibo guztiek batera lan egiteko beharra, adierazten da, horretarako giza baliabideetan inbertsioa eginez. - Udalarari dagokionez, hizkuntza politika ausartak eta eraginkorrak beharrezkoak direla uste da, eta euskara ezinbesteko zehar lerro gisa lantzea eremu guztietan. Ikuspegia zabaltzeko beharra, udalak zuzenean euskararen esparruan egin dezakeenaz gain, gainontzekoak ere eragile izateko bitartekoetan pentsatu beharra. - Zaintza sektorea identifikatzen da eragin eremu garrantzitsu bezala. Atzeritik etorritako emakume ugari dihardute bertan jaiotako herritarrak zaintzen. - Arabea ikasteko baliabiderik ez dago, eta arabieraz hizt egiten duten familiek zailtasunak dituzte seme alabei jatorrizko hizkuntza irakasteko. - Azkoitiako Udala UEMaren parte ez izatea



AISIALDIA	
INDARGUNEAK	- Azken urteetan gero eta pertsona gehiago, gazteak bereziki, hurbiltzen dira (gaueko) aisialdira Azkoitira, nabaritzen da hori eta positibotzat hartzen da.
AHULGUNE-KEZKA NAGUSIAK	<ul style="list-style-type: none"> - Aisialdirako espazioei dagokionez, gurasoak hurrekin egoteko aisialdirako eremuen beharra dagoela uste da. Bereziki, negua igarotzeko espazio "goxo" edo aterpedunen beharra azpimarratzen da. Horrez gain, dauden parke, plaza eta berdeguneen txukuntzea beharrezkoa dela uste da. - Gazteei dagokionez, nerabegarotik hasita aisialdirako aukerak urriak direla uste da, herrian ez dago aukera asko. Espazio erakargarri eta integratu baten beharra aipatzen da, belaunaldi ezberdin eta sektore ezberdineko herritarrentzat. Espazio atsegina eta naturarekin lotura izango duena, gaur egun ez da horrelakorik. Hainbat jarduera antolatzen badira ere batzuetan zaila da asmatzen, zaila da nerabeak erakartzen. - Halaber, gazteen aisialdi ohiturak, batez ere, alkohol eta gaueko aisialdiarekin lotura duenak sortzen du kezka herritarren artean. Elkarbizitza arazoak sortzen ditu honek. - Nerabe eta gazteei begirako zerbitzuetan (ludoteka, gazte-txoko..) behar bereziei aurre egiteko errekurtsioak izatea (pertsonak eta formatuak).



4.3. SOZIOEKONOMIA

Gai eremu honetan Azkoitiko egoera ekonomikoarekin lotutako iritziak jaso dira eta atal ezberdinetan banatu da bildutako informazioa. Hasteko lehen sektorearekin zerikusia duten gaiez hitz egiten da, ondoren, herriko merkataritza txikiaren egoera kezkarriaz, jarraian, industriaren balio eta beharrez, eta bukatzeko, herritarren egoera ekonomiko edo lan egoerek sortzen dituzten zailtasunez.

SOZIOEKONOMIA	
INDARGUNEAK	<ul style="list-style-type: none"> - Lehenengo sektoreari dagokionez, azokaren kokapen estrategikoa nabarmentzen da. - Eremu sozioekonomikoan herritarrek ikusten duten indargune nagusia herriak duen industria oinarria. Sektore industrialari balio handia ematen zaio sortzen duen aberastasuna eta herritarren lan eremu garrantzitsu gisa. - Industriako lanpostu batzuk asetu ezinda badaude ere, azken urteetan formakuntzan urrats garrantzitsuak eman dira moduluen sorrerarekin. - Herriko zerbitzuen ugaritasun edo aniztasuna, eta gertutasuna ere aintzat hartzen dute herritarrek. - Orokorrean, Azkoitiak bizi kalitate handia edo ona duela uste da. - Langabeziaren bilakaera azken urteetan positiboa izan da.
AHULGUNE-KEZKA NAGUSIAK	<ul style="list-style-type: none"> - Azoka: Egun jakinetan ezik ekoizle gutxi egoten da bertan. Errelebo falta somatzen da baserritarren artean. Baserritar batzuk kanpoko azoketara (Tolosa...) joaten dira saltzera, bertan gutxi salduko dutelako, aldiz, bertan daudenak azokaren balizko eraberritze batek sortu dezakeen konpetentzia eszeptizismotik bizi dute. - Egoera oso kezkarria eta etorkizunera begira erreleborako zailtasun handiak herriko merkataritza txikian. Arrazoiak: kontsumo ohituren aldaketa (elikagaiak ezik beste produktuentzat Internet, hiriguneak, merkatal-gune handiak... gero eta pisu handiagoa dute). Tiket Bai fakturazio sistema edo online salmenten hedatze (digitalizazioa) adinekoentzako oztopo, muga bat da askorentzat. Establezimenduen bideragarritasuna zalantzan dago askotan. - Prekarizazioa: lanpostuen kalitatearekin dagoen kezka partekatua da. Prekarizazioa gainditu beharra azpimarratzen da, lan eremu ezberdinetan, azpikontratazioetan... - Kontziliazioa da hainbat herritarrei kezka sortzen dien gaia. Enplegua eta zaintza uztartzeko zailtasun handiak dituzte lanean ari diren guraso ugari eta uzte dute, zerbitzu publikoak errealtate horretara egokitu beharko liritekeela. Baina uste da ezin dela sektore publikoaren arduratik soilik enfokatu, sektore pribatuaren inplikazioa ere beharrezkoa da arazoari irtenbideak aurkitzeko. - Etxebizitzak alokairuan edo erosteko bada ere prezio altuegiak dituztela diote herritarrek. Gazteen eta atzerritik herrira bizitzera etorri direnen kezka nagusia da etxebizitzarena, zailtasunak dituzte herrian bertan etxebizitzak lortzeko, batez ere, dauzkaten diru iturri eta prezio altuengatik. Horrekin batera, babes ofizialeko etxebizitzak beharrezkoak direla eta udalak etxebizitza publikoa sustatu beharko zuela uste da. Migratuek arazo gehigarria dute alokairurako, bereizketa egiten delako (mesfidantza dago). Etxe hutsak zirkulazioan jartzeko bideak aurkitzea.



<p>IDEIA OSAGARRIAK</p>	<p>LEHENENGO SEKTOREA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lehenengo sektorearen aitortza eta prestigio falta bertako jendartean. - Oro har elkarlan gutxi dago lehenengo sektoreko eragileen artean <p>MERKATARITZA TXIKIA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Itxiera posibleen detekzioa eta aurre egiteko mekanismoak ezarri beharra (orokorrean tabua da azken une arte). - Merkataritza txikiaren espezializazio handiagoa, produktuetan bereiztea lortzea erronka bat da. - Sentsibilizazio falta herritarren artean: merkataritza txikiaren beharraren kontzientzia falta. - Herritarren artean ere merkataritza txikiaren egoerak kezka sortzen du. Herrigunean komertzio ugari itxita daudela nabarmentzen da. Enpresa txiki eta ertainen sorrera bultzatu beharra dagoela uste da, ekintzaitzaren sustapenean indarrak jarritz. Eta, sektore ekonomiko berriak ere aintzat hartzea (ostalaritza, osasuna, energia berriztagarriak, egurrezko eraikuntza...). Hari horri tiraka, bertako produktuak eta produktoreak balorean jartzeko beharra ikusten da. <p>INDUSTRIA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Sektore industrialarentzat Azkoitiak inguruko herriekin duen komunikazioa hobetzea garrantzitsua litzake. - Aldi berean, herritarren formaziorako zentroak bultzatu behar direla uste da. Goi mailako ikasketak eskualdean egiteko aukera ere arakatzea, elkarlanetik abiatuta unibertsitate ikasketetarako urratsa ematea. - Trantsizio ekonomiko-ekologikoari aurre egitea erronka handia da. - Industriarako lurren gaiarekin kontraesan bat antzematen da: Industriara bideratutako lurretan dauden hainbat instalakuntza hutsak dauden bitartean, posible da industria jakinek lur gehiago behar izatea bere interes edo ezaugarri zehatzetarako instalakuntzez hornitzeko. <p>OROKORREAN</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lan merkatuari dagokionez, uste da lanpostuen sorrera dela ahulezia nagusia, baina lanpostuekiko kezka badago ere, une honetan eskualdeko langabezia %7an kokatzen da, eta azken urteetako ibilbidea positiboa izan da. - Polarizazioa: sektore zaurgarrietako pertsonak eta beste herritarren arteko gero eta arrakala handiagoa ari da ematen. Beraz, sektore zaurgarrietan fokoa jarri beharra azpimarratzen da: atzerritik etorritako pertsonak, 50 urtetik gorako pertsonak, langabetuak, emakumeak... - Zuzenean udalari dagokionez, fiskalitate politika eraginkorragoa beharrezkoa dela aipatzen da, udalak gaitasun ekonomiko gehiago izan dezan. Aldi berean, ur eta zaborren tasen prezio altuak ere herritarrek kezkatzen ditu. - Etorkizunari begirako eszeptizismoa ere ikusten da hainbat ekarpenetan, adieraziz, lan espektatibak ez direla oso onak eta etxebizitza merkatuaren egoerak gazteen emantzipazioa asko zailtzen duela. Lan arrazoiengatik gazteen migrazioak kezka sortzen du.
-------------------------	---

4.4. BERDINTASUNA, KULTUR ANIZTASUNA ETA ANIZTASUN FUNTZIONALA

Diagnostikoan hainbat gairen zeharkakotasuna agerian gelditu da, esaterako hizkuntzarena edo zaintza lanen gaia, hala ere, laugarren gai eremu honetan ezaugarri erabat zeharkakoa duten hiru gai landu dira; hala nola, emakume eta gizonen arteko berdintasuna, herriko kultur aniztasuna, eta aniztasun funtzionala.

BERDINTASUNA	
AHULGUNE-KEZKA NAGUSIAK	<ul style="list-style-type: none"> - Zaintzaren gaiari erantzun beharra nabarmentzen da. Gai konplexua izaki, herrian eztabaida zabala bultzatzeko beharra dagoela uste da, ondoren Azkoitirako eredu propioa garatzeko xedearekin. Zaintzaren arloari eusteko zaintzaileekin lanketa egitea beharrezkoa da. - Indarkeria matxistarena da aipatzen den beste gai kezkarri bat. Gainera azpimarratzen da matxismoa eta homofobiari aurre egiteko herriko lanketa baten beharra dagoela, eta horretarako baliabideak behar direla. Eta indarkeria matxistari aurre egiteko ahulguneak aurkitzen dira protokoloan. Horiei irtenbidea eman behar zaie.
IDEIA OSAGARRIAK	<ul style="list-style-type: none"> - Emakume ugari dauzkaten lan baldintza kaskarraren aurrean kezka ageri da. - Kirol arloan berdintasun falta aipatzen da, futbolaren kasuan gizonezkoa lehenesten delako (Azkoitiko kasuan, ala orokorrean ez da zehazten?)



KULTUR ANIZTASUNA	
INDARGUNEAK	<ul style="list-style-type: none"> - Uste da Azkoitian kanpotik etorritako pertsoneri harrera ona egiten zaiela, eta balioa ematen zaio horri. Laguntza ekonomiko eta soziala ere aipatzen da indargune bezala.
AHULGUNE-KEZKA NAGUSIAK	<ul style="list-style-type: none"> - Komunitateen arteko bizikidetzan sakontzea. Herrira datozenak eta bertan jaiok harremantzea beharrezkoa dela uste da, komunitatea eratzeko eta bizikidetzan lantzeko. Harreman ezak eta komunitate isolatuetan bizitzeak ahulezia bat dela uste da. Iniziatibak jarri behar dira martxan hori gainditzeko, eta horretarako, eragileekin kontaktu behar da. Ikusgarritasuna eman eta elkarrekin interaktuatzeko aukera, Azkoitia Herrilab +700 inizatiba egokia da. - Migratu duten emakumeek aukera oso gutxi dituzte, ikasketa eta alfabetatu gabekoak dira asko. Ahalduntzean lagundu beharra. Halaber, nahiz eta formazioa izan, homologazio arazoak direla edota aitortza falta dela, zaintza lanetan eta garbiketara soilik izaten dute aukera. - Azkoitian aniztasunaren kudeaketa egoki baterako giltza euskara dela uste da, horregatik, migratu duten pertsonen euskaraz ikastea eta bertakoek ere inklusioan laguntzeko gerturaztea eta urratsak ematea beharrezkoa da.
IDEIA OSAGARRIAK	<ul style="list-style-type: none"> - Kultura anitzen ezagutza gizarteratzearen beharra aipatzen da, usteak eta zurrumurruek gainditzeko bidean. - Gizartearen joera indibidualista eta askotan arrazista ahulgunea edo oztopoa izan daitekeela uste da aniztasunaren kudeaketa egoki baterako. - Etorकिनaren etiketa: Azkoitian bizi eta lan egiten duten pertsonak herriaren parte dira, eta "etorkinaren" etiketa bizitza osorako gelditzen da. Lagundu behar da bertan errotzen. - Bi iritzi korrante nabari dira herritarren artean migrazioaren aurrean. Batetik, migrazioa mesfidantza giro batekin ikusten dutenak, uste dute atzeritik etorritakoek abantailak dituztela (diru laguntzak...) ezer baino lehen, eta egokitzeko exigentzia egiten zaie (lan egin dezatela). Eta bestetik, aniztasuna kudeatzeko konfiantza eta inklusioa landu behar direla uste dutenak, zeinak ulertzen duten, atzeritik etorritako pertsonen hainbat zailtasun izan ditzaketela (lana, etxebizitza, hizkuntza), eta azkoitiarrak ere inklusioaren bidean urratsak ematea beharrezkoa dela. - Pertsona migratu asko ez daude errolatuta eta beraz ez dute oinarritzko eskubiderik bermatuta. Errola sozialaren aukera martxan jarri beharko litzake udaletik beste herri batzuetan egin den bezala Donosti, Olereta...



ANIZTASUN FUNTZIONALA	
INDARGUNEAK	<ul style="list-style-type: none"> - Herrian aniztasun funtzionala lantzen duen elkarteak existitzen da eta lan oparoa egiten du, besteak beste, herritarren kontzientziazioan.
AHULGUNE-KEZKA NAGUSIAK	<ul style="list-style-type: none"> - Edozein aniztasun funtzionalekin bizi diren pertsonak, herrian eskaintzen diren kultura ekintzetan parte hartzeko baliabideak bermatzea. - Kirola inklusioan egin ahal izateko errekurtsioak bermatzeko beharra (eskola kirolean eta klubetan). - Aniztasun funtzionala duten pertsona batzuk, bailarako hezkuntza sisteman ez dute lekurik eta zoritxarrez kanpora joan behar izaten dute beraien ikasketak jarraitzera (normalean egokituak). Edozein aniztasun funtzionalekin bizi diren pertsonak, bere heziketa herrian (bailaran) jasotzeko eskubidea bermatuta izan behar duela azpimarratzen da. Udalaren eskumeneko gaia ez izan arren, udalak baduela esku hartzea uste da. - Nerabe eta gazteei begirako zerbitzuetan (ludoteka, gazte-txoko..) behar bereziak dituzten pertsonentzat errekurtsioak izatea (pertsonak eta formatuak). - Aniztasun funtzionala duten pertsonen laneratzeko aukerak sortzea (adib: Aniztasun funtzionala duten pertsonen ikasketa praktikaldiak Udaletxeko hainbat lanpostuetan egin ahal izateko aukera emanez) - Irisgarritasunak unibertsala izan behar du eta inklusiboa, nonbaitera iristeko edo ateratzeko, zerbait ulertzeko, hobeto entzuteko edo ikusteko,... funtzionaltasuna nolabait konprometitu duen edonork besteak erabiltzen duten bide berbera erabiltzeko eskubidea du. Funtzionaltasun osoa duten pertsonekin batera ibiltzeko aukera bermatzen joan behar da pixkanaka. Erronka gisa: Azkoitian dauden eraikin publiko guztiak irisgarriak izatea, irisgarriak fisikoki (sarrera berdinak, ranpak,...) eta irisgarriak kognitiboki (piktogramak, braille,...). aurrera begira ildo honetan elkarlana sustatzeko Aniztasun funtzionalaren mahaia sortzea beharrezkotzat jotzen da.



4.5. ONGIZATEA ETA BIZI KALITATEA

Gai eremu honetan Azkoitiako adineko pertsonengan jartzen da foko nagusia, bizi kalitatea hobetzeko beharretan. Eta horrekin batera elkarbizitzari eragiten dioten hainbat ideia ere lantzen dira.

ADINEKO PERTSONAK	
INDARGUNEAK	- Adineko pertsonentzako jarduerak sustatzeko prestutasuna duten eragileak daude: Kirol orientazio zerbitzua. Ttipi Ttapa (Pasira) ekimena oso garrantzitsua da, eta bultzatu beharko litzateke egoitzakoek ere bertan parte hartzea.
AHULGUNE-KEZKA NAGUSIAK	- San Jose Egoitzak sortzen duen kezka nabarmentzen da bereziki. Erabiltzaileek gaur egun bizi duten egoera desegokia aipatzen dute, eta horrez gain, egoitzaren kokapena ere ez dela egokia adierazten da. Herrigunetik urrunegi dago eta honek erabiltzaile eta herritarren arteko harremana ez duela ahalbidetzen. Horregatik, beharrezkotzat jotzen da udalak esku hartu dezan egoera honetan. Egoitzatik mugitzea oso zaila da egoiliarrentzat, urbanoa ez da egokitzen egoitzako pertsonen errealitatera (azken uneko urgentzien aurrean, ez du itxoiten, ordutegia finkoa da). Taxi funtzioa beharko luke. - Zaintzaren inguruan sentsibilizazio maila baxua da. Alboratzen eta ezkututzen dugu 3. Adina, ezgaitasuna....ezkutatzeko kultura, eta ez elkarbizitza kultura. Belaunaldien arteko harremanak sustatzeko beharra.
IDEIA OSAGARRIAK	- Adineko pertsonen zaintza bermatzeko zerbitzuak hobetzeko beharra ikusten da, gaur egungoak gabeziak dituzte eta hobetzeko asko dago. Etxeetako zaintzan, adineko pertsonen bizitza eta autonomia etxeetan luzatzeko laguntza gehiago behar da administrazio publikoaren aldetik. - Adineko pertsonentzat aisialdirako jardueren sustapena beharrezkoa dela uste da. Bakardadea jasaten du adineko pertsona askok eta sozializatzeko zein jarduera fisikoa egiteak osasunarekin harremana daukala aipatzen da. - Zahartzen ari den herri bat den heinean adineko pertsonentzako espazioak egokitzea beharrezkotzat jotzen da. Horien artean paseoan duden bitartean atsedean hartzeko guneak eta zerbitzu eta arlo urbanistikoari dagokionez ere egokitzapenak egitea beharrezkoa dela seinalatzen da. Halaber, irisgarritasuna aintzat hartu beharreko ahulgunea da herriko hainbat puntutan, eta hainbat etxebizitzetan, adineko pertsonen autonomia baldintzatzen duelako.




ELKARBIZITZA	
INDARGUNEAK	<ul style="list-style-type: none"> - Herritar jatorrak, atseginak eta lasaiak. Herritarren jatorrasuna azpimarratzen da, eta horrekin batera, oro har atseginak eta herriaren lasaitasuna ere balioan jartzen da. Bizitzeko toki apropos gisa ikusten da. - Egunerokoan giro atsegina azpimarratzen da, eta ez-gatazkatsua. Alde horretatik segurua dela aipatzen da. - Herritarren arteko gertutasuna ere aintzat hartzeko ezaugarria da, elkarrekiko ezagutzak komunitate izaera ematen duela aipatzen da.
AHULGUNE-KEZKA NAGUSIAK	<ul style="list-style-type: none"> - Erdigunean asteburu gauetan taberna inguruan sortzen diren zarata bizilagunen deskantsuarentzat oztopo da, eta bertako bizilagunek kezkarekin bizi dute. Kalearen garbitasun falta eta izaten diren pilaketak ere kezkarekin bizi dituzte. - Elkarbizitzaren eremuan ere kokatu daitekeen kezka da udalak herritarren iritzia gehiagotan entzun beharko lukeela, eta kontuan hartzea. Partaidetzan ez du laguntzen udalaren burokratizazioak, oztopo bezala ikusten da zailagoa delako harremana udala eta herritarren artean. Horrez gain, udalaren gardentasun atariak ez du egoki funtzionatzen, eta partaidetzarako beharrezkoa da gardentasuna, eta kanal horiek egoki funtzionatzea. Egindako eskaerei ez zaie erantzunik ematen. Partaidetzari dagokionez ere, herritarrei jakinarazi behar zaie gauza batzuk udalari eskatzen zaizkiola baina ez direla bere eskumenekoak. Foru Aldundia lantzen ari da, esaterako, fibra optikoa landa eremuan, bidegorriko argiteria, adinekoen egoitza...
IDEIA OSAGARRIAK	<ul style="list-style-type: none"> - Bereziki gazteen aldetik hainbat jarrera ez zibiko nabari dira eta belaunaldien artean kultura aldaketa eman dela ikusten da. Kanean, orokorrean garbitasun kontzientzia falta dago. - Atzeritik iritsi diren pertsonen iritziz orokorrean komunitate nahiko itxia da Azkoitia, eta hori bizikidetzara sortzeko zailtasuna izan daiteke.



4.6. BIZILAGUNAK, AUZOAK, INGURUMENA ETA LURRALDEA

Azkeneko atalean ingurumenarekin harremana duten gaiak landu dira, horrekin lotuta mugikortasunaren egoera aztertu da, eta azkeneko bi gaietan auzoei eragiten dieten gaiak eta hirigintzarekin zerikusia dutenak.

INGURUMENA	
INDARGUNEAK	- Natur ingurune aberatsa eta polita du Azkoitiak inguruan.
AHULGUNE-KEZKA NAGUSIAK	<ul style="list-style-type: none"> - Azkoitiko espazio publikoan dagoen zikinkeria azpimarratzen da, udalak garbiketan indar gehiago egin beharko lukeela adieraziz eta ibai eta erreken zikintasuna azpimarratzen da. Hainbat eremutan zaborrontzi gehiagoren beharra adierazten da, eta zabor bilketa ez dela eraginkorra. Uste da gehiago garbitzeak ez duela arazoa konponduko. Gainera beste arazo batzuk sortzen dira: goizeko 6:30-07:00etan makinak kaleak garbitzen ateratzen duten zaratak ez du zarataren ordenantza betetzen. Kontua ez da gehiago garbitzea, gehiago ez zikintzea baizik. Ulertzen da udalaren betebeharra dela garbitzea, baina ezin du jokabide "paternalista" batekin soilik jokatu, ez zikintzeko sentsibilizazioa landu beharra. - Animaliananako asistentzia eta sentsibilitate falta udalaren aldetik. Ez da betetzen animalien babeserako legea herrian. Udalaren, ingurumen sailaren eskumeneko gaia da eta erantzun bat eman beharko luke. Kaleko katuen zaintzarako elkarteak ez du gehiagorako ematen, baliabideak eta bitartekoak behar ditu, eta udalaren erantzukizuna den lana betetzen dihardu. Lotutako txakurren kasuan eman den erantzuna ez da egokia izan, txipa jarri eta lotuta jarraitzen dutelako. Animalien saila edo zinegotzia izendatu beharko litzake (beste herri batzuetan egin da) - Foro iraunkor baten beharra ingurumen arloa lantzeko, udalak, eragile ezberdinek, herritarrek parte hartuko dutena. Ingurumen plana, egon badago, baina ez da exekutatu. Martxan jartzea eta jarraipen bat egitea beharrezkoa da. Ingurumenaren zeharkakotasuna ere aintzat hartzeko beharrezkoa da. - Birziklapena: gabezia dago herrian eta sentsibilitate falta. Eskoletan lan egiten bada ere ez da nahikoa. Errealitatea ezagutu eta praktikatik jarduerak burutu behar dira, maila teorikoan aurreratuago gaude praktikoan baino.
IDEIA OSAGARRIAK	<ul style="list-style-type: none"> - Inguruko basoen egoera kezkarria da. Basoen kudeaketa publiko eza, ekosistemarentzako eta gizakiarentzako ahulguneak dira. Eukaliptuen kasua jartzen da adibidetzat. - Energiari dagokionez, energia berriztagarriak herrian sustatzeko beharra azpimarratzen da, kolektibo, herritar eta udalaren artean, eta bonifikazioen bidez. Gainera elektrizitatearen prezioaren igoerak ere herritarrek kezkatzen ditu. Zumarragarako bidean dagoen hidroelektrikaren erabilera aztertu daitekeen galdetzen da. - Azkarateko hondakinen plantak sortuko duen kutsadura eta herritarren artean izango duen inpaktua. - Marko orokorrari begira aldaketa klimatikoari egiten zaio erreferentzia, adieraziz, arazo globala bada ere, herritik bertatik ere eragitea beharrezkoa izango dela. - Ingurumen arloak lehentasun eta garrantzia gehiago izatea udal politiketan, gaur egun ez du leku nabarmenik.



MUGIKORTASUNA	
INDARGUNEAK	<ul style="list-style-type: none"> - Herriaren tamaina da bereziki egokien baloratzen dena, zerbitzuen gertutasuna eta distantzia motzak, orokorrean dena eskura dago. - Paseatzeko gunek ere balioan jartzen dira. - Autobus urbanoa izatea herrian
AHULGUNE-KEZKA NAGUSIAK	<ul style="list-style-type: none"> - Garraio publikoari dagokionez, aipatzen da nahiz eta herriaren kokapena lurraldean nahiko erdigunekoa den, Azpeitia eta Donostirekin ez den gainontzeko herri eta hiri garrantzitsu "estrategiko" batzuekin konexioak ez dela egokia. Garraio publikoan Bizkaia aldera, Goierri aldera edo Arrasatera esaterako, mugitzeko aukera gehiago beharrezkoak dira. Beharrezkoa da Zumarragarekin konexioa hobetzea, Zumarragako ospitalearekin batez ere. Orokorrean Azkoitiaren konexioak hobetzeak bertako merkataritzan izan dezakeen eragin negatiboa aintzat hartu behar da. - Erdialdearen guztizko peatonalizazioak mugikortasunean lagunduko lukeela uste da, eta kotxeekin arazoak ekiditeko balioko luke. Bidegorriaren mantenua hobetu beharko litzakela uste da, argiteria konponduz.
IDEIA OSAGARRIAK	<ul style="list-style-type: none"> - Herriko auzoen arteko mugikortasuna hobetzea beharrezkotzat jotzen da, bai eta beste herri batzuetara doazen bideen egokitzapen lanak egitea ere: kasu honetan Zumarragarako bidea aipatzen da. - Urbanoaren ordutegia mugatua da.



HIRIGINTZA	
INDARGUNEA	- Auzoetan lasaitasun handia dagoela adierazten dute, eta horretaz gain hauetan dauden aisialdirako ekipamenduei ere garrantzia ematen zaie: frontoiak besteak beste.
AHULGUNE-KEZKA NAGUSIAK	<ul style="list-style-type: none"> - Herriguneari dagokionez Floreaga auzoa da herritarrek gehien nabarmentzen dutena. Mantenimendu eta irisgarritasun baldintza okerretan dagoela azpimarratzen da. Hala ere dagoeneko Udala eskua hartzen ari da. - Herrian dagoen aparkaleku falta da herritar askorentzat ahulgune garrantzitsu bat. Lur azpiko aparkaleku bat bultzatu beharko litzake. Hala ere, aparkalekuak egiteak kotxearen erabilera sustatzen badu, klima aldaketa ez gara aintzat hartzen ari. - Eliz aurreko Idiakez etxea eta bere aldamiok erdigunea desitxuratzen duela uste da eta urte luzez luzatzen ari dela eraberritzea uste dute herritarrek. Legeak dioen bezala ondare historikoa babesteagatik, paralizazioa eta behar materialak asetu gabe gelditu dira, eta bitartean ondare historikoak kaskartzen jarraitzen du. Etxebizitza proiektu polita egin daiteke Idiakez etxean, eta kalean dago, eta adineko pertsonentzat proiektu bat egin daitekeela uste da. - Oro har herriko puntu ezberdinetan beharrezkoak diren mantenu lanak aipatzen dira, konpontzeko lur, asfaltu edota espaloiak. - Parke estalia egokitzat jotzen bada ere orokorrean, gehiagoren beharra azpimarratzen dute herritarrek.
IDEIA OSAGARRIAK	<ul style="list-style-type: none"> - Herriko puntu batzuetan argiteria hobetzeko edo konpontzea beharrezkoa dela uste da, eta zebra bide batzuen ikusgarritasuna ez dela nahikoa adierazten da, esku hartu beharra dagoela adieraziz. - Plaza Berriren eraberritzea



5. AZKOITIA HERRILAB +700: LEHENETSITAKO LAN-ILDOAK

Bateratze saioa diagnostikoan sortutako ideia guztien artean etorkizuneko ekintza plan batean fokoa jarrita lehentasunak markatzeko baliatu da. Hori horrela, hurrengo koadroetan, herritarrez, elkarte eta taldeez, ordekarri politikoz eta teknikariz osatutako taldeak lehenetsi dituen ideiak sintetizatuko dira.

Prozesuaren logikan diagnosia osatu ostean aurrera begirako lan ildoak martxan jartzeko ekintza plan bat burutzea aurreikusten da, lan hori oraindik diseinatua ez badago ere, diagnostiko fasean sortutako ideia guztien arteko lehentasunak markatzeak etorkizunera begirako estrategiak pentsatzen lagunduko du.

Honakoak dira herritarrek lehentasunezkoztat jotzen dituzten ideiak:

- *INGURUMEN FOROA*: Ikuspegi anitzak batuko dituen foro iraunkorra sortzea lehenesten da, bertan, politiko eta teknikariez gain herritarrez osatua egongo litzateke. Foroaren eginbeharren artean dagoeneko idatzia dagoen ingurumen planaren exekuzioaren jarraipena burutzea legoke. Eta beste batzuen artean gai hauek jorratuko lituzke: Basoen kudeaketa, energia berriztagarriak, ibaia, animaliak...
- *ZAINTZA*: pertsonen zaintza beharren aferari herri gisa eta gaiak dituen ertz oro aintzat hartuta erantzun bat lantzeko beharra nabarmentzen da; beste batzuen artean azpimarratzen dira, adineko pertsonen zaintza, zaintzaileen lan baldintzak, emakume migratu zaintzaileen beharrak... Azkoitirako baliagarria izango den zaintza ereduak aintzat hartu beharko lituzkeen gakoak dira.
- *EMAKUMEEN LAN BALDINTZAK ETA INDARKERIA MATXISTA*: Emakume eta gizonen arteko lan baldintzen arteko arrakala eta emakumeek sektore jakinetan dituzten lan baldintzetan fokoa jartzea lehenetsi behar dela uste da. Horrekin batera, indarkeria matxistari aurre egiteko baliabideak eta protokoloak hobetzea hartzen da lehentasunezko gaitzat.
- *EUSKARA INDARTU*: Euskararen erabilerarekin herriak duen joera iraultzea lehentasunezko gaia da, horretarako, fokoa baliabideetan, herritarren kontzientziazioan eta ikasteko laguntzetan jartzen da.
- *KULTURGUNEA ETA SORKUNTZAREN SUSTAPENA*: Herriko kultur dinamizazioari hauspoa emateko ekipamendu baten beharra nabarmentzen da, jarduerari egokitua eta kultur dinamika elikatzen lagunduko duena. Horrekin batera sorkuntzaren sustapenerako herriko sortzaileen ezagutza, sustapena eta saretzea beharrezkoa dela uste da.

- *ANIZTASUN KULTURALA ETA BIZIKIDETZA*: komunitate kulturalen eta pertsonen isolamendua gainditzea lehentasunezko gaia da, horretarako, hizkuntza eta inklusio kulturalaren sustapena egin eta baliabideak jartzea beharrezkoa dela uste da.
- *TRANTZISIO EKONOMIKOA*: Herriko ekonomiaren ezaugarri kezkarriak aintzat hartuta eta trantsizio ekonomiko-ekologikoa erronka gisa ulertuta, lehentasunak honakoetan jartzen dira: baserritarren beharrak eta azokaren sustapena; merkataritza txikiaren biziberritzea; eta enpresa txikien bideragarritasun eta sustapena.

Diagnostikoan aipatu diren hainbat gai erabat harremanetan daude eta beste batzuk zeharkako harremana dutela esan daiteke. Arestian lehenetsi diren gai horiek bere baitan beste hainbat jarduera edo ekintzaren garapena eskatuko dute. Beraz, lehenetsitako horiez gain, edo horiekin batera, bigarren maila batean bada ere honako gaiei ere arreta jarri behar zaiela uste da: Etxebizitzaren arazoa; prekarizazioa; nerabeei begirako politiken garapena; elkartegintzaren errelebo beharra; inklusio funtzionala; eta, herritarren partaidetza sistematikoa.



6. AMAIERA HITZA

Azkoitia Herrilab +700 prozesuak abiapuntua ezarri du. Azkoitiarren iritzi anitzetan oinarritutako diagnostiko partekatua sortu da prozesu honen bidez, hainbat ideia eta ikuspegi ezberdin batu dituen diagnostikoa, alegia.

Gisa honetako esperientzia baliagarria da etorkizunean garatu daitezkeen ekintzak arrakastatsuak izan daitezen. Izan ere, hor dago diagnostiko partekatuaren balioa, egoera edo errealitate konkretu baten ulkerera komunitik abiatzea, berau sortzen duten arrazoiak partekatu, eta ondorioz, proposatzen diren ekintzek lortzen duten kontsentsurako abagunean.

Halaber, Azkoitia Herrilab +700ek gaur egungo gizarte joeren aurka instituzio publikoaren eta herritarren artean existitzen den arrakala txikitzen lagundu du. Neurri txikian izan bada ere, elkar ezagutza ematea eta lanketa bera partekatu izanak urrats bat dira norabide horretan.

Horrekin batea, herritarren partaidetzak, herriko elkarte eta eragile ezberdinen inplikazioak ahalbidetu du batzuen eta besteen behar konkretuetatik harago, ikuspegi integralago bat gailentzen. Herri ikuspegi batetik jarduteko ezinbesteko urratsa da hori, eta etorkizunean ere gobernantza eredu berrietarako bidean pausoak emateko komunitate eragile baten sorkuntzaren hazia ernatzen du.

Baina 2021. urterako diseinatutako prozesua puntu honetan bukatzen bada ere, oraindik abiatutako zikloaren itxiera emateko ekintza planean pentsatzea gelditzen da. Hirugarren fase gisa irudikatu den hau, aurrekoak baino konplexuagoa dela aurreikusi daiteke, epe motzeko lehentasunei nola aurre egin erakutsi beharko du, eta aldi berean, epe luzeko erronkei eusteko bidea irudikatu. Nolanahi ere, prozesuan behin baino gehiagotan azpimarratu den bezala, gako nagusia ezarritako bide-orrian, praktikan urratsak ematean datza, hau da, esatetik egiterako urratsean.